

## Eskubide Sozialen Gutun proposamenari buruzko gogoetak

1.- Euskal Herrian garatzen ari den estrategia neoliberalak geldiarazteko erabili nahi den Eskubide Sozialen Gutun proposamena ez da eraginkorra izango ez epe-erdi ez epe-luzera, jarraian datozen egiturazko gabeziak baititu.

- a) Egungo eredu kapitalistaren egitura-krisi sistemikoaren aurrean norbanako zein taldeko ikuspuntutik ez du eraldaketarako joera berri baten alde egiten, bestelako ikusmira estrategikoei ezer berririk eskeini gabe eta haiek ordezkatu gabe.
- b) Herriar klase sozialak defentsa jopuntuan kokatzen ditu, Administrazio Publikoko uneko kudeatzaile-arduradun politikoarekin harremanean **ALDARRIKATZE-ESKATZE** rola emanaz.
- c) **DEFENTSARA BEGIRAKO ESTRATEGIA** irudikatzen du, aldarrikatuko diren Eskubide Sozialen finantzaketa bilduko diren zergen arabera baita, eta biltzen diren zergen kopurua murrizten doaz urtetik urtera krisiaren eragina eta politika eskuidarretik sustatzen ari diren politika fiskalei direla eta.
- d) Eskubide Sozialen Gutuna egungo eredu kapitalisten **ONARPENA-LEGITIMAZIOA** da izatez eta datozen kontsekuentziei lotuta dago:

### 1.- Lan/gizartearen ikuspuntutik:

- Eskastasuna, erbeste laborala edo langabezia langile-klase osoarentzat.
- Menpekotasuna/erdi-esklabutza lan merkatura iritsiko diren edo iritsi nahi duten gazteentzat.
- Menpeko enpresario-langile lan-erlazioan emakumeen egoeraren larritzea.

### 2.- Ingurugiroaren ikuspuntutik:

Garapen Ekonomikorako estrategia mantendu eta egiaztatu egiten da, materialen, uraren, enegiaren (pick oil-arengatik hurrengo krisi izango dena), lurraren... goranzko kontsumoa dakarrena.

Garapen Ekonomikorako estrategia hau da Aldaketa Klimatikoaren, ur/elikadura eskasiaren, kutsaduraren... krisi ekologikoan arduradun.

### 3.- Ekonomiaren ikuspuntutik:

Langile-klaseak eredu neoliberalaren kudeatzaileen aliatu izatera bultzatzen ditu egitan, haiekiko **MENPEKOTASUNA** baitute oinarrizko beharrak asetu/ordaintzeko.

# Auzolan

## 4.- Politikaren ikuspuntutik:

Herritargoa MENPEKOTASUN egoeran jartzen du, ez baita lan- eta politika-eremutan erabakitzeko gaitasuna berreskuratzen. Hau da, Botere guztia enpresetako eta Intstituzio Publikoetako kudeatzaile-jabeen esku uzten da.

Egitan, Eskubide Sozialen Gutunean *“lanaren eskubidea”* aldarrikatu beharrean, zehatzagoa litzateke *“soldatapeko enplegua”* idatziko balitz. Azkenaurreneko Lan Erreforma eta gero, non langileak eta lan merkatura iritsi nahi dutenak erdi-esklabutzako baldintzetan jartzen zaien, soldatapeko enpleguaren beharra adierazten duten aldarrien kontraesan jasangaitza onartzeko ordua da abertzaleen postulatuetatik.

Aldaketa sozio-ekonomikorako ezinbestekoa da independentzia (eta gure izate kolektiboa islatzea). Euskal Herriaren independentzia ezingo da egi bihurtu burujabetza ekonomikoari lotua ez badoa, bai talde eta bai norbanaren mailan. ***“Botere ekonomikorik gabe ez dago botere politikorik”.***

Bada garaia “abertzale izatearen NAHIETIK (sinboloen etapa) abertzale izatearen BEHARRERA” pasatzea.

Azkenik, Eskubide Sozialen Gutunaren estrategia, Burujabetasunean oinarritzen den Garapen Ekonomikoaren geure Eredu Propioa eraikitzeke Jarrera Aktiboa indartzeko jabetze-kolektiboa **ATZERATU** egiten du, Batzarre-Auzolan-Herri jabegoak hirukiak sortzen duena. Auzolan proposamena.

Proposamen hau ez da berria; are gehiago, geure herriak zenbaitetan jarri du praktikan Historian zehar: *pro libertate Patria, gens libera state...* *“Emakume eta gizon askeak Aberri aske bat eraikitzen”.*

Usurbil 2013ko irailaren 10ean